

ZINEMATEKA

# DOROTHY ARZNER

**Ekainaren 1etik 9ra**
Del 1 al 9 de junio

**ARTEA ETA KULTURA**
ARTE Y CULTURA

Az
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.com

Dorothy Arzner (San Frantzisko, Kalifornia, 1897ko urtarrilaren 3a - La Quinta, Kalifornia, 1979ko urriaren 1a) Estatu Batuetako film-zuzendari bat izan zen.
1930eko hamarkadan Hollywooden izan zen emakumezko film-zuzendari bakarra da. Zerbitzari aritu zen aitak Hollywooden zuen jatetxe txiki batean. Egunero jarduten zuen aktoreekin, zuzendariekin eta gidoilariekin. Lehen Mundu Gerran Anbulantzien Zerbitzuan aritu zen, eta, horren ondoren, zinema-arloan sartu zen, Famous Players-Lasky gidoien saileko idazkari, Cecil B. DeMilleren anaia zen William C. DeMilleren aginduetara.
Bere talentuari eta adimenari esker, arin egin zuen aurrera, eta script, negatiboen ebakitzaile eta, azkenik, muntatzaile aritu zen. Fred Niblo zuzendariaren ‘Blood and sand’ (1922) filmeko tiroketako sekuentziekin egin zuen muntaketa nabarmentzen da bereziki.
James Cruze zuzendariak aukera eman zion ‘The Covered Wagon’ (1923) western epikoa muntatzeko, eta Arzner-ek dotorezia handiz egin zuen. Bere balioa erakutsi ondoren, Paramount Picturesek ‘Fashions for Women’ (1927) film apala zuzentzea eskaini zion. Arrakasta handia izan zen, hala komertziala nola kritika aldetik. Arzner-ek arrakasta hori sendotu zuen, jazz aroko beste film hauekin: ‘Ten Modern Commandments’ (1927) eta ‘Get Your Man’ (1927).
Ondorengo filmekin areagotu egin zen zinemagile gisa zuen sona, batez ere, ‘The Wild Party’ (1929) lanarekin eta Katharine Hepburnek gazte-gaztea zela antzeztutako ‘Christopher Strong’ (1933) dramarekin. Hala ere, beharbada, ‘Craig’s Wife’ (1936) filma izan zen arrakastarik handiena, Rosalind

Dorothy Arzner (San Francisco, California, 3 de enero de 1897 - La Quinta, California, 1 de octubre de 1979) fue una directora de cine estadounidense.
Dorothy Arzner fue la única mujer directora de cine en Hollywood en los años 30. Trabajó como camarera en un pequeño restaurante que tenía su padre en Hollywood, trataba diariamente con actores, directores y guionistas. Después de servir en el Cuerpo de Ambulancias durante la Primera Guerra Mundial, Arzner entró en el mundo del cine como secretaria del departamento de guiones de Famous Players-Lasky, a las órdenes del director William C. DeMille hermano de Cecil B. DeMille.
Gracias a su talento e inteligencia progresó rápidamente e hizo de script, recortadora de negativos y finalmente montadora, destacando por el montaje de las secuencias de tiroteto de Blood and sand (1922) —en español Sangre y arena—, del director Fred Niblo.
El director James Cruze ofreció a Arzner la oportunidad de montar su épico western ‘The Covered Wagon’ (1923), lo que hizo con elegancia. Después de mostrar su valía, Paramount Pictures le encargó la dirección de una modesta película, ‘Fashions for Women’ (1927), que fue un éxito comercial y de crítica. Arzner consolidó este éxito con otras dos películas de la era del jazz, ‘Ten Modern Commandments’ (1927) y ‘Get Your Man’ (1927).
Su prestigio como cineasta creció con sus siguientes películas, sobre todo ‘The Wild Party’ (1929) y el drama ‘Christopher Strong’ (1933), en la que intervino una jovencísima Katharine Hepburn. Pero quizá su mayor

Russell gaztea protagonistatzat izan zuena. Dena dela, azterketa feministek Lucille Ball protagonistatzat duen ‘Dance, Girl, Dance’ (1940) film azidoa dute gogoan bereziki, music-hallaren alde iluna salatzen baitzuen.
Sekula ez zuen bere burua feministatzat jo, baina, Arzner eredutzat hartuta, emakume asko sartu ziren industria zinematografikoan; eta haren filmik onenak alternatiba interesgarria dira oraindik, gizonek mendean hartutako Hollywood klasikoko zinemaren aurrean.
Antza, Hollywoodeko komunitateak bazuen Arzner-en lesbianismoaren berri, baina ez zion jaramon handirik egin. Bikotekidea zuen Marion Morgan dantzari eta koreografoarekin bizi izan zen 1930etik 1979an hil zen arte.
1943an Arzner-ek Hollywood utzi zuen gaitz batetik sendatzeko, eta ez zen gehiago itzuli. Hollywoodeko ibilbidearen ondoren, denbora-pasako filmak zuzendu zituen armadako Hollywoodeko ibilbidearen ondoren, denbora-pasako filmak zuzendu zituen armadako emakumeentzat, eta Amerikako Zuzendarien Sindikatuak saria eman zion 1975ean. Pepsi-Colako zuzendari batekin ezkonduta zegoen Joan Crawford lagunak enpresarentzat publizitate-iragarki batzuk egiteko eskatu zion. Zinemako irakaslea ere izan zen Los Angelesen egoitza zuen Kaliforniako Unibertsitatean.
Omenaldia egin, eta izar bat jarri zioten Hollywoodeko Ospearen pasealekuan, Vine Street-eko 1500 zenbakian. ///

éxito fue ‘Craig’s Wife’ (1936) con la también joven Rosalind Russell como protagonista; sin embargo, los estudios feministas la recuerdan por la ácida ‘Dance, Girl, Dance’ (1940), una denuncia del lado oscuro del music-hall protagonizada por Lucille Ball.
A pesar de que nunca se consideró feminista, el ejemplo de Arzner llevó a muchas mujeres a entrar en la industria cinematográfica, y sus mejores películas continúan siendo una alternativa interesante al cine del Hollywood clásico dominado por los hombres.
El lesbianismo de Arzner parece ser bien conocido por la comunidad de Hollywood, pero se le prestaba poca atención; vivió con su pareja, Marion Morgan, una bailarina y coreógrafa, desde 1930 hasta su muerte en 1979.
En 1943 Arzner dejó Hollywood para recuperarse de una enfermedad y no volvió más. Después de su carrera en Hollywood dirigió películas de entretenimiento para mujeres de la armada y fue premiada en 1975 por el Sindicato de Directores de América. Su amiga Joan Crawford, que estaba casada con un directivo de la Pepsi-Cola, le pidió varios anuncios publicitarios para la empresa. También fue profesora de cine en la Universidad de California, sede Los Ángeles.
Fue homenajeada con una estrella en el Paseo de la fama de Hollywood en el número 1500 de Vine Street. ///

**EGITARAUA** PROGRAMA

| | | |
|---|---|---|
| **EKAINAK** 1 DE JUNIO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **CHRISTOPHER STRONG** (HACIA LAS ALTURAS), **1933**<br>**DIGITALA** DIGITAL 78' |
| | 19:30 | **DANCE, GIRL, DANCE** (BAILA MUCHACHA, BAILA), **1940**<br>**DIGITALA** DIGITAL 90' |
| **EKAINAK 2** DE JUNIO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **DANCE, GIRL, DANCE** (BAILA MUCHACHA, BAILA), **1940**<br>**DIGITALA** DIGITAL 90' |
| | 19:30 | **CHRISTOPHER STRONG** (HACIA LAS ALTURAS), **1933**<br>**DIGITALA** DIGITAL 90' |
| **EKAINAK 8** DE JUNIO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30 | **NANA** (LA REINA DEL BOULEVARD), **1934**<br>**DIGITALA** DIGITAL 90' |
| | 19:30 | **CRAIG'S WIFE** (LA MUJER SIN ALMA), **1936**<br>**DIGITALA** DIGITAL 73' |
| **EKAINAK 9** DE JUNIO<br>**Osteguna** Jueves | 17:30 | **CRAIG'S WIFE** (LA MUJER SIN ALMA), **1936**<br>**DIGITALA** DIGITAL 73' |
| | 19:30 | **NANA** (LA REINA DEL BOULEVARD), **1934**<br>**DIGITALA** DIGITAL 90' |

**Film guztiak JBGA (jatorrizko bertsioan, proiektatuko dira gaztelaniazko azpitituluekin), soinua erantsita eta ingelesezko errotuluekin.**
**Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**

Todas las proyecciones son VOSE (Versión original subtitulada en castellano) sonorizadas con rótulos en inglés.
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en www.golem.es

+ info: www.azkunazentroa.com



## SARRERAK ENTRADAS

**Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**
Taquillas del cine y www.golem.es

4,5€ / 3,5€

**Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartel-leheihatilan ilarak saihesteko. Behin emanaldia hasita, ezin da aretoan sartu. Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.**

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. No está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión.
Azkuna Zentroa no se resposabiliza de cualquier cambio de programación debido a circunstancias ajenas a su gestión.

**Azkuna Zentroko Zinematekak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: www.azkunazentroa.com**

La Zinemateka de Azkuna Zentroa organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: www.azkunazentroa.com

## LABURDURAK ABREVIATURAS

**A/F: Argazkiak** Fotografía
**A: Aktoreak** Actores
**B/N: Zuri-beltzez** Blanco y negro
**Dc: Dekoratuak** Decorados
**G: Gidoia** Guión
**JB/VO: Jatorrizko bertsioa** Versión original
**JBGA/VOSE: Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz azpitítulatua**
Versión Original con subtitulos en castellano
**K/C: Kolorea** Color
**M: Musika** Música
**Mu/Mo: Muntaketa** Montaje
**P: Produktorea** Productor
**Pr: Ekoizpen-etxea** Compañía productora
**S: Soinua** Sonido
**Z/D: Zuzendaria** Director



## CHRISTOPHER STRONG (1933)
## HACIA LAS ALTURAS

**EEUU. Digitala** Digital **78'**

**Z/D:** Dorothy Arzner. **A:** Katharine Hepburn, Colin Clive, Billie Burke, Helen Chandler, Ralph Forbes, Irene Browne, Jack LaRue, Desmond Roberts.

**Ezkonduta dagoen Sir Christopher Strong parlamentariak Lady Cynthia Darrington hegazkin-pilotu dotorea ezagutu du jai batean. Hasieran, tratu xaloa da haien artekoa, baina pixkanaka harremana hasiko dute, eta horrek eragina izango du parlamentariaren ezkontzako zoriontasunean eta bien ibilbide profesionaletan.**

En una fiesta, el parlamentario Sir Christopher Strong, un hombre casado, conoce a la elegante piloto de avión Lady Cynthia Darrington. Al principio, su trato es inocente pero poco a poco empiezan una relación que afectará la felicidad matrimonial del parlamentario y las carreras profesionales de ambos. //



## DANCE, GIRL, DANCE (1940)
## DANTZATU, NESKA, DANTZATU
## BAILA MUCHACHA, BAILA

**EEUU. Digitala** Digital **90'**

**Z/D:** Dorothy Arzner. **A:** Maureen O'Hara, Louis Hayward, Lucille Ball, Virginia Field, Ralph Bellamy, Maria Ouspenskaya, Mary Carlisle, Katharine Alexander, Edward Brophy, Walter Abel, Harold Huber, Ernest Truex, Chester Clute, Lorraine Krueger.

**Judy O'Brien dantza-talde bateko kidea da, eta ballet klasikoan aritzeko xedea du. Bubbles adiskideak taldea utzi, eta komedian ardaztuko du lana. Taldea desegin ondoren, Bubblesek esker txarreko lana eskainiko dio Judyri: haren ikuskizunaren abiatzailea izatea.**

Judy O'Brien forma parte de un grupo de baile y aspira a dedicarse al ballet clásico. Bubbles, compañera suya deja el grupo para centrarse en la comedia. Cuando el grupo se deshace, Bubbles le ofrece a Judy un ingrato trabajo: ser la telonera de su espectáculo. //



## NANA (1934)
## LA REINA DEL BULEVARD

**EEUU. Digitala** Digital **90'**

**Z/D:** Dorothy Arzner, George Fitzmaurice. **A:** Anna Sten, Lionel Atwill, Richard Bebbett, Mae Clarke, Phillips Holmes, Muriel Kirkland, Reginald Owen, Helen Freeman, Lawrence Grant, Jessie Ralph, Lucille Ball.

**Nana gazteak ikuskizunaren munduan arrakasta izatea du amets. Hori lortzeko, atsedenik hartu gabe aritzen da lanean Parisen. Behin batean, zorte-kolpe batez, miresle batek musika-aldizkari bat sortzea erabaki du, Nana izar bakartzat hartuta.**

Nana es una joven que sueña con triunfar en el mundo del espectáculo. Por ese motivo trabaja sin descanso en París. Un día tiene un golpe de fortuna, y un admirador suyo se decide a crear una revista musical donde Nana sea la única estrella. //



## CRAIG´S WIFE (1936)
## CRAIGEN EMAZTEA
## LA MUJER SIN ALMA

**EEUU. Digitala** Digital **73'**

**Z/D:** Dorothy Arzner. **A:** Rosalind Russell, John Boles, Billie Burke, Jane Darwell, Dorothy Wilson, Alma Kruger, Thomas Mitchell, Raymond Walburn, Elisabeth Risdon, Robert Allen, Nydia Westman, Kathleen Burke.

**Emakume menderatzaile bat gizon aberats batekin ezkondu da diruagatik, eta, gero, haren mailaz baliatuko da dirua eta boterea eskuratzeko dituen gogo biziak betetzeko.**

Una mujer dominante se casa con un hombre rico por su dinero, y después utiliza su posición para llevar a cabo sus ambiciones de dinero y poder. //

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PIDENOSLO. AZKUNA ZENTROA ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

## ZENTROAREN ORDUTEGIA
HORARIO DEL CENTRO

| | | | |
|---|---|---|---|
| 7:00h - 23:00h | ASTELEHENA-OSTEGUNA<br>LUNES-JUEVES | 8:30h - 24:00h | LARUNBATA<br>SÁBADO |
| 7:00h - 24:00h | OSTIRALA<br>VIERNES | 8:30h - 23:00h | IGANDEA<br>DOMINGO |

**Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.**

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

# www.azkunazentroa.com

info@azkunazentroa.com
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO
944 014 014

Depósito legal BI-129-2016

Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao
www.azkunazentroa.com